

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea

Udalbatzak, 2020ko urriaren 26ko bilkuran, kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Erabaki hori jendaurrean egon den bitartean ez zen ordenantzaren aurkako alegaziorik aurkeztu. Hori dela-eta, erabaki hori behin betiko bihurtu da, halaxe xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua araber.

Hori guztia, egokituz jotzen den beste edozein errekurtsio aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

BERARIAZKO ORDENANTZA, KONTZEJUEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUENA

1. ARTIKULUA. Diru-laguntzen xedea.

Berariazko Ordenantza honen bitartez Zigoitiko Udalak ematen dituen diru-laguntzen oinarriak finkatzen dira. Diru-laguntza horiek, Udalerriko kontzejuek oinarritzko zerbitzu publikoak garatzeko eta hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko sustatzen dituzten lanak finantzatzea dute helburu. Lan horiek modu honetan sailkatzen dira:

a) 1. TALDEA:

1. Obra berria, birgaitzea edo konponketa-lanak ur edangarriaren eta euri-uren eta ur zikinen saneamendurako etxez etxeko hornikuntza-sareen azpiegituretan.

2. Bide publikoak seinaleztatzeko lanak, bizikletentzako eta oinezkoentzako bideen mugaketak barne.

3. Energia jasangarritasunera bideratutako lanak (isolamendua hobetzea, energia-iturri berriztagarriak jartzea: hidraulikoa, eguzki-energia, eolikoa, biomasa...)

4. Hiri-lurzoruko eta nekazaritza-erabilera bideetako kaleak berritzea eta konpontzea, bide horiek bizikletaz erabili ahal izatea bada helburua. Talde honen barruan ez dira diruz lagunduko kale eta bideak bizikleta-zirkulazioaren eta trafiko motorizatuaren erabilera partekatu edo mistorako egokitzeko obrak.

5. Hiri-lurzorutik kanpoko auzo-bideak berritzea eta konpontzea, baldin eta obrak bizikletentzako edo oinezkoentzako erabilera ahalbidetzeko badira eta Zigoitiko herriguneak lotzeko balio duen ibilbide baten parte badira.

b) 2. TALDEA:

6. Obra berria, birgaitzea edo konponketa lanak, Kontzeju Etxean, edo herritarrei zerbitzu publikoa ematen zaien bestelako eraikinetan.

7. Obra berria, birgaitzea edo konponketa lanak, hiri-lurzoruko bide publikoen zoladuran, batzordeen jabetzakoak diren nukleoetarako sarbideetan eta hilerrietarako sarbideetan.

8. Obra berria, birgaitzea edo konponketa lanak, argiteria publikoaren, argindar- eta telefonia-zerbitzuen eta beren instalazioen lurpeko kanalizazioan.

9. Obra berria, birgaitzea edo konponketa lanak, bidaiarien garraio publikoaren zerbitzurako erabiltzen diren markesinetan edo parekoetan.

10. Kontzejuen jabetzakoak diren elementu bereziak zaharberritzeko eta konpontzeko lanak, adibidez: ermitak, iturriak, errotak, garbitegiak... Baita parrokia-elizak zaharberritzeko lanak ere, beti ere administrazio batzarraren jabetzakoak badira, edo eraikinaren jabeak jabetza administrazio-batzarrari utzi baldin badio. Lagapenak hogeitabost urteko iraupena izan beharko du, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta.

c) 3. TALDEA:

11. Obra berria, birgaitzea edo konponketa lanak, kirol ekipamenduetan.

12. Obra berria, birgaitzea edo konponketa lanak, umeen aisialdirako eremuetan.

13. Obra berria, birgaitzea edo konponketa lanak, eremu berdeetarako edo hiri-lorategietarako espazio publikoetan.

14. Hilerria konpondu eta/edo eraikitzea.

d) 4. TALDEA:

15. Nekazaritza-erabilerarako bideak berritu eta konpontzea.

2. Ondorengo obrek ez dute finantzaziorik jasoko:

a) Indarrean dagoen legeriaren edo hirigintza-plangintzaren arabera, eraginpeko sustatzailerik edo jabeek finantzatu behar dituzten urbanizazio-obrak.

b) Udal hirigintza-ordenantzan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten hirigintza-lanak.

2. ARTIKULUA. Erakunde onuradunak.

Diru-laguntzen onuradun izango dira Zigoitiko Udalerrian legez eraturik eta erregistratuta dauden Kontzejuak.

Erakunde eskatzaileak bere zorrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta izan beharko ditu. Baldintza hori eskaera aurkezten den unean bete beharko da, eta hala iraun beharko du prozesu osoan (kontzesioa eta ordainketa).

3. ARTIKULUA. Deialdiaren publizitatea.

Deialdiaren laburpen bat argitaratuko da ALHAOn, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bidez.

Eskaerak aurkezteko epea, iragarkia ALHAOn argitaratzen den unetik hasiko da kontatzen.

4. ARTIKULUA. Baloratzeko baldintzak eta irizpideak.

1. Honako hauek dira diru-laguntzaren xede diren jarduerak eta lan bakoitzarentzako baldintza bereziak:

a) Deialdiaren urte naturalaren barruko epealdian egindako lanak lagunduko dira diruz.

b) Obra bakoitzeko gehieneko diru-laguntza 75.000 eurokoa izango da, 4. TALDEko 1. Artikuluan zehaztutako lanetarako ezik. Azken horietan, gehieneko 20.000 eurokoa izango da.

Era berean, dirulaguntzak ezingo du gainditu obraren kostu osoa:

1. TALDEA: Ehuneko 70.
2. TALDEA: Ehuneko 60.
3. TALDEA: Ehuneko 50.
4. TALDEA: Ehuneko 40.

Obra bat hainbat ekitalditan egiten bada, emandako diru-laguntza, fase desberdinetan metatuta, ezingo da 75.000 eurotik gorakoa izan, eta urteko diru-laguntzak ez du gaindituko deialdiaren urte naturalean gauzatutako obraren kostuaren diruz lagun daitekeen gehieneko ehuneko.

c) Ez dira diruz lagungarriak izango Zigoitiko Udalak azken 15 urteetan diruz lagundutako zerbitzu publikoen gaineko obrak, epe hori diruz lagundutako azken obra-fasetik aurrera zenbatzen hasita.

2. Diru-laguntzaren helburu diren lanek nahitaez izan beharko dute udal lizentzia, edo, hala badagokie, alde aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dute.

5. ARTIKULUA. Zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inolaz ere gainditu urte bakoitzean Zigoitiko Udalaren Aurrekontuaren 900.734.000 partidari esleitutako kopurua.

6. ARTIKULUA. Diru-laguntzak emateko prozedura.

Diru-laguntzak norgehiagokako erregimenaren bidez emango dira. Beti hasiko da ofizioz, Alkatetzak onartutako deialdi publikoaren bidez.

Eskaerak aurkeztea:

1. Eskaerak aurkezteko gehieneko epea, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, urteroko deialdian zehaztuko dira.

Udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko dira eskaerak, edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. Artikuluan, Administrazio Prozedura Komunari eta Administrazio Publikoei buruzkoan, jasotako edozein bidetatik ere bai.

2. Diru-laguntza hauetara dokumentazioa aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta modu formalean onartzea dakar.

3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- i. Eskabide ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- ii. Diruz lagungarri den jardueraren justifikazio-memoria. Bertan jasoko dira, gutxienez, egin beharreko lanen deskribapen laburra, obren kokaleku fisikoa eta egin beharreko lanen zerrenda.
- iii. Lanen aurrekontua.

Instrukzioaren eta ebazpenaren eskuduntza duen organoa:

1. Espedientearen instrukzioaren eskuduntza duen organoa Alkatetza da.
2. Ebazpenaren eskuduntza duen organoa Osoko Bilkura da. Honek, alde aurretik, Kontue-tarako, Osoko Bilkurako Gaiak Prestatzeko eta Gobernu-kudeaketaren Informaziorako Batzorde Bereziaren aldeko irizpena jaso beharko du.

Azterketa eta ebazpena:

1. Instrukzio-jardueretan honako hauek sartuko dira:

—Erabakiak hartzeko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatzea, horien artean, esparru bakoitzeko teknikariena, eta Idazkaritza-kontuhartzaitzarena.

—Egindako eskaera guztiak ebaluatzea, diru-laguntza arautzen duen arauak edo, bere kasuan, deialdiak finkatutako balorazio irizpide, era eta lehentasunen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren, Kontuetarako, Osoko Bilkurako Gaiak Prestatzeko eta Gobernu-kudeaketaren Informaziorako Batzorde Berezira eramango da espedientea, eta honek eskaerei buruzko txostena egingo du.

Espedientea eta organo kolegiatuaren txostena ikusirik, instrukzioaren ardua duen organoak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta bertan jaso beharko ditu diru-laguntza jasotzeko proposatzen duen eskatzaileen zerrenda, laguntzaren zenbatekoa, eta ebaluaziorako erabili dituen irizpideak.

2. Osoko bilkurak diru-laguntzen kontzesioa ebatziko du.

Osoko Bilkuraren akordioak arrazoitua izan beharko du, eta, gutxienez, diru-laguntza ematen zaien erakunde eskatzailearen izena edo eskatzaileen zerrenda, eta atzera botatakoen zerrenda jaso beharko ditu.

Ebazteko epea 3 hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita, eta epe horren barruan ebazpenik edo jakinarazpenik ez badago, eskaerak atzera botatzen direla ulertuko da.

Ebazpenak bukaera emango dio administrazio-bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean.

Era berean, alde aurretik, berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da Osoko Bilkuraren aurrean, hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Prozedura Administratibo Komunaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Zuriketaren ondoren, aurrekontu-aplikazioan, kreditu-soberakin egonez gero, Osoko Bilkurak adostu ahal izango du, deialdi berri bat egin beharrik gabe, jada emanda dauden diru-laguntzen zenbatekoaren gehikuntza hainbanatua, beti ere oinarri hauetan ezarritako gehieneko muga gainditu gabe.

7. ARTIKULUA. Justifikazio-modua eta epea.

Diru-laguntza jasotzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da Udalean:

— Onuradunak sinatutako instantzia, Alkateari zuzendua, diru-laguntzaren ordainketa eskatzeko. Instantzia horretan transferentzia zein kontu-zenbakian egin behar duten adierazi behar dute.

— Gastua egiaztatze fakturen originalak edo fotokopia konpultsatuak.

— Faktura horiek ordaindu dituztela egiaztatzen duten agiriak.

— Beste entitate edo organismo batzuek emandako diru-laguntzak egiaztatze agiriak.

Justifikaziorako dokumentazioa abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar da.

Diru-laguntza ematen duen organoak, justifikazioa aurkezteko epea luzatzea erabaki dezake. Luzapena ez da 3 hilabete baino gehiagokoa izango, eta, beti ere, ezingo ditu hirugarren baten eskubideak urratu.

Zuritutako gastuak hasieran aurkeztutako aurrekontua eta eskatutako kopurua baino txikiagoak badira, ordaindu beharreko diru-laguntzari dagokion kopurua kenduko zaio.

8. ARTIKULUA. Konturako abonua.

Kontzejuak urteko kontuak aurkeztu eta diruz lagundutako lan bati dagokion faktura bat ordaintzea ezinezkoa zaiola erakutsiko balu, udalak fakturaren zenbatekoa ordainduko du Kontzejuaren kontuan. Ordainketa hori diru-laguntzaren konturako abonua izango da.

Kontzejuak hartzekodunari ordaindu diola ziurtatu beharko du ordainagiria aurkeztuz, udalaren transferentzia jaso eta 10 eguneko epean. Edozein kasutan, ordainagiriak aurkezteko epea 7. artikuluan, diruz lagundutako gastua zuritzeko zein dokumentazio aurkeztu behar den zehazten duenean, adieraziko da.

Udalak konturako abonua gisa ordaintzen duen kopurua inoiz ere ez da izango egokitutako diru-laguntzaren kopurua baino handiagoa.

9. ARTIKULUA. Ebazpena aldatzea.

Zigoitiko Udalaren Aurrekontuko 900.734.000 aplikazioan nahikoa kreditu badago, Korporazioaren Osoko Bilkurak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa aldatzea adostu dezake, aldezturik Kontuetaarako, Osoko Bilkurako Gaiak Prestatzeko eta Gobernu-kudeaketaren Informaziorako Batzorde Bereziaren txostena jaso ondoren. Beti ere, diru-laguntza eskaeran aurkeztutako kostua baino handiagoa justifikatzen bada, diruz lagundutako obran.

Aldaketarako eskaera guztiak arrazoituak izan behar dira, eta aurrekontuetan duten eragina zehaztu behar dute.

10. ARTIKULUA. Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Laguntza hauek beste diru-laguntza edo laguntza motarekin bateratu daitezke.

Diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inolaz ere gainditu (diru-laguntza hori bakarrik zein beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera) egingo den jardueraren kostuaren ehuneko 100.

Onuradunak diru-laguntza ematen duen organoari jakinarazi behar dio helburu berarako beste diru-laguntza, laguntza publiko, sarrera edo baliabideak eskuratu dituela.

11. ARTIKULUA. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioarekin sortu daitekeen edozein zalantza, Alkateak ebaziko du, aldezturik Kontuetaarako, Osoko Bilkurako Gaiak Prestatzeko eta Gobernu-kudeaketaren Informaziorako Batzorde Bereziaren eta gaiaren ardura duten teknikarien txostenak aztertu ondoren.

12. ARTIKULUA. Legeria gehigarria.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko kasuak Zigoitiko Udalaren diru-laguntzen eta laguntzen Ordenantza Orokorrean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorrean eta azken lege honen araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege-dekretuan ezarritakoaren arabera ebaziko dira.

Azken xedapena

Berariaz indargabetuta geratzen da Zigoitiko Udalerriko Kontzejuei diru-laguntzak emateko ordenantza espezifikoak. Ordenantza hori 2012ko apirilaren 26ko Osoko Bilkuraren saioan onartu zen, eta 75. zenbakidun ALHAOn argitaratu, 2012ko ekainaren 29an.

Ondategin, 2021eko urtarrilaren 22an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA